

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

Borja Corominas Fisas Udal Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Askatasun hiribidean dauden aldirietako autobusen geralekuak kentzea dela eta, Udalbatzan azter dadin.

JUSTIFICACIÓN

Hiriaren erdialdera ibilgailu gutxiago sartzea beti izan da Gobernu honen helburuetako bat. Azken hamarkadetan, Donostiak ikusi du nola ugaltzen ziren oinezkoen kaleak, batez ere hiriaren erdialdean, bai eta bidegorriak eta autoen sarrera mugatzeko beste jarduera batzuk ere.

Donostiako metroa egiteko obrak eragina izaten ari dira hiriko alde askotan. Besteak beste, San Martin kaleko zirkulazioa erabat moztu behar izan da. Egia da egoera hori nahitaez jasan behar dugula, metroa eraiki nahi badugu behintzat, baina kalte handia ekarri dio ibilgailuen zirkulazioari eta, horren ondorioz, auto-ilarak sortzen dira, egunero, hiriaren erdialdean.

Gure hiriko hainbat arteria nagusitan ia ezinezkoa da "harrapatuta" gelditu gabe zirkulatzea. Hori oso maiz gertatzen da Askatasunaren hiribidean; izan ere, gure hiriko ohiko trafikoaz gain, hiri arteko autobus batzuek geralekuak dituzte erdialdeko kale horretan, eta, hori dela eta, bi erreietako bat ezin da behar bezala erabili.

2016ko otsailean, Atotxako autobus-geltokia inauguratu zen, eta, harrezkero, Lurraldebuseko hainbat lineak kale horretara eraman zituzten beren geralekuak eta beren ibilbideen abiapuntuak. Autobusak eskuineko erreian (Antigua aldera) etengabe gelditzeak ibilgailuen zirkulazioa zailtzen du, oso auto-ilara handiak eraginez; are gehiago orain, gure hirian egiten ari diren obra guztiekin, kale batzuk itxita baitaude. Dbus-eko autobusek ere ibilbidea aldatu behar

▶ PP Talde Politikoa Grupo Político PP

Ijentea, 1 | Tel. 943481707 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

izan dute, hiri barruko lineen erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko, eta, hala, horietako askok Askatasunaren hiribidetik zirkulatzen dute orain.

Horiek horrela, gure ustez, momentu hau egokia da Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzeko Askatasunaren hiribidetik igarotzen diren Lurraldebusen lineen ibilbideak eta geralekuak aldatzeko.

Horiek horrela, Alderdi Popularreko udal taldeak honako mozio hau aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari Lurraldebusen geralekuak Askatasunaren hiribidetik kendu eta Atotxako autobus geltokira eraman ditzala.

Donostia, 2021eko otsailaren 4a

Borja Corominas Fisas,

Udal Talde Popularreko bozeramailea